



**2021ko martxoaren 12ko Ikastetxe eta Plangintzako zuzendariak emandako Jarraibideak, 2021-2022 ikasturterako dantzako irakaspen profesioalarrera sartzeko probak arautzen dituztenak.**

Urtarrilaren 26ko 85/2007 Errege Dekretuak, dantzako irakaspen profesionalen curriculumaren oinarriko alderdiak ezarri dituenak, bere 7. artikuluan zehaztu duenaren arabera, irakaspen horiek egiteko sarbide proba berezia gainditu beharko da, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, Hezkuntzari buruzkoak, dioenarekin bat.

Halaber, honako hau ere ezarri du: proba horiek arautzea hezkuntza-administrazioei dagokiela, eta proba horietan, aipatu Errege Dekretuak ezarritako helburuekin bat, baloratu egingo direla irakaspen profesionalak probetxuz egin ahal izateko heldutasuna, gaitasunak eta ezagutzak.

Aurrekoa kontuan hartuta, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendari honek ondoko jarraibideak ematea ebatzi du.

**LEHENA.- Xedea**

Urtarrilaren 26ko 85/2007 Errege Dekretua aplikatuz, arau honen bidez erregulatu egiten da Dantzako irakaspen profesioalerrako sarbide proba espezifikoak, Dantza klasikoko espezialitateari dagokiona.

**BIGARRENA.- Aplikazio eremua**

Arau hau Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremuan aplikatuko da.

**HIRUGARRENA.- Probarako sarbidea**

1.- Dantzako irakaspen profesionalak gradu bakarreko sei kurtsotan antolatuko da, Urtarrilaren 26ko 85/2007 Errege Dekretuak xedatu duenaren arabera.

**Instrucciones del 12 de marzo de 2021 del Director de Centros y Planificación que regulan las pruebas de acceso a las enseñanzas profesionales de danza para el curso 2021-2022.**

El Real Decreto 85/2007, de 26 de enero, por el que se establecen los aspectos básicos del currículo de las enseñanzas profesionales de danza, determina en su artículo 7, que para acceder a estas enseñanzas será preciso superar una prueba específica de acceso, de acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación.

Así mismo, establece que corresponderá a las Administraciones educativas la regulación y organización de las pruebas, en las que se valorará la madurez, aptitudes y conocimientos para cursar con aprovechamiento las enseñanzas profesionales, de acuerdo con los objetivos establecidos en el citado Real Decreto.

Teniendo en cuenta lo anterior, esta Directora de Innovación Educativa acuerda dictar las siguientes instrucciones.

**PRIMERA.- Objeto**

En aplicación del Real Decreto 85/2007, de 26 de enero, se procede a la regulación de la prueba específica de acceso a las enseñanzas profesionales de Danza en la especialidad de Danza clásica, mediante la presente norma.

**SEGUNDA.- Ámbito de aplicación**

La presente norma será de aplicación en el ámbito de competencia de la Comunidad Autónoma Vasca.

**TERCERA.- Acceso a la prueba**

1.- Las enseñanzas profesionales de Danza se organizarán en un grado de seis cursos de duración, según lo dispuesto en la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación.



2.- Ikaslegaia irakaspen profesionaletako edozein kurtsora sartu ahal izango da, aurrekoak egin gabe, baldin eta proba espezifikoa bidez erakusten badu dagozkion irakaspenak probetxuz egiteko beharrezko ezagutzak dituela.

3.- Sarbide-proba urteroko deialdian egingo da.

### **LAUGARRENA.-Sarbide-proba espezifikoa**

Dantzako irakaspen profesionaletara, Dantza Klasikoko espezialitatean, sartzeko proba espezifikoa publikoa izango da, eta lau zati bereizi izango ditu, ondoren ezartzen denaren arabera:

a) Barra-ariketa guztiak, gehienez ere berrogeita bost minutuan. Ikastetxeko irakasleek zuzenduko dituzte, baita pianoarekin lagundu ere.

b) Zenbait bariazio egitea erdialdean, gehienez ere berrogeita bost minututan, ikastetxeko irakasleen zuzendaritzapean, eta haien laguntzarekin.

c) Musika-zati baten gaineko inprobisazioa. Pianoz laguntzen duen irakasleak aurretik jakinaraziko dio ikaslegaiari zein den zati hori. Iraupena ez da hiru minutu baino gehiago izango.

d) Musika-proba bat, ikaslegai bakoitzaren musika-gaitasunak baloratzeko (erritmo-gaitasuna eta entzumen aktiboa).

### **BOSGARRENA.- Sarbide-probaren antolamendua.**

#### *1.- Sarbide-proba egiteko eskabidea*

Dantzako irakaspen profesionaletara, Dantza klasikoko espezialitatean, sarbide-proba espezifikoa egin behar duten ikasleek honako ikastetxe honetan eman beharko dute izena: Vitoria-Gasteizko "José Uruñuela" Dantzako Udal Kontserbatorio (Hiru Probintzien plaza, 8 zkia.). Izena emateko epea honako hau izango da: maiatzaren 18tik ekainaren 4ra, biak barne.

#### *2.- Proba egitea : tokia eta egutegia*

A) Sarbide-proba: Dantzako Udal Kontserbatorioan egingo da.

B) Hona egutegia eta ordutegia:

2.- El alumno o alumna podrá acceder a cada curso de las enseñanzas profesionales sin haber cursado los anteriores, siempre que, a través de la prueba específica, el/la aspirante demuestre poseer los conocimientos necesarios para cursar con aprovechamiento las enseñanzas correspondientes.

3.- La prueba de acceso se realizará en convocatoria anual.

### **CUARTA.- Contenido de la prueba de acceso específica.**

La prueba específica de acceso a las enseñanzas profesionales de Danza en la especialidad de Danza clásica, que será pública, constará de cuatro partes diferenciadas, según se establece a continuación:

a) Todos los ejercicios que componen la barra, con una duración no superior a cuarenta y cinco minutos, que serán dirigidos y acompañados al piano por el profesorado del centro.

b) Realización de diferentes variaciones en el centro, con una duración no superior a cuarenta y cinco minutos, que serán dirigidas y acompañadas por el profesorado del centro.

c) Una improvisación sobre un fragmento musical que será dado a conocer previamente al/a la aspirante por el profesor/a pianista acompañante, y cuya duración no será superior a tres minutos.

d) Una prueba de carácter musical para valorar las aptitudes musicales de cada aspirante (capacidad rítmica y escucha activa).

### **QUINTA.- Organización de la Prueba de acceso.**

#### *1.- Solicitud para la prueba de acceso*

El alumnado que tenga que realizar la prueba específica de acceso a las enseñanzas profesionales de Danza, de la especialidad en Danza clásica, deberá realizar la inscripción en el centro Conservatorio Municipal de Danza "José Uruñuela" de Vitoria-Gasteiz (Plaza de las Provincias Vascongadas, nº 8) desde el día 18 de mayo al 4 de junio, ambos inclusive.

#### *2.- Realización de la prueba: lugar y calendario*

A) La prueba de acceso se realizará en el propio Conservatorio Municipal de Danza.

B) El calendario y horario serán los siguientes:

5º y 6º cursos: día 16 de junio, a las 17 horas.



5. eta 6. kurtsoak: ekainaren 16an, 17:00etan.  
3. eta 4. kurtsoak: ekainaren 17an, 17:00etan.  
1go eta 2. kurtsoak: ekainaren 18an, 17:00etan.

3º y 4º cursos: día 17 de junio, a las 17 horas.  
1º y 2º cursos: día 18 de junio, a las 17 horas.

### **SEIGARRENA.- Sarbide-probaren ebaluazioa.**

#### *1.- Ebaluazio-epaimahaia.*

Epaimahai bat eratuko du sarbide-proba hau ebaluatzeko. Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria, edo haren ordezkia, izango da epaimahaiburu, eta irakaspen profesionalak emateko baimena duen ikastetxeko bi irakaslek ere osatuko dute epaimahaia. Epaimahaiburuak proposatuz gero, beharrezkotzat jotako aholkulariak ere sar daitezke ebaluazio-batzorde gisa.

#### *2.- Proben kalifikazioa.*

2.1.- Sarbide-proba osatzen duten ariketak orokorrean edo osotasunean baloratuko dira; beraz, ez da ariketa bakoitzaren kalifikazio partzialik emango.

2.2.- Proba puntu 1etik 10era bitartean puntuatuko da, eta proba gainditzeko 5 puntu beharko dira, gutxienez.

2.3.- Epaimahaiak dagokion akta beteko du ikasleen sarbide-proban ateratako emaitzak jasota uzteko. Epaimahaiak guztiek izenpetu beharko dute akta. Akta hori ikastetxeko idazkaritzan entregatuko da, gorde dezaten.

2.4.- Hautagai batek eskatutako mailarako egindako sarbide proba gaindituko ez balu, epaimahaiak sarbide-proban erakutsitako errendimendua kontutan hartuta, ikasleari dagokion kurtsoa adieraziko dio, eta horretan matrikula egiteko aukera emango dio.

### **ZAZPIGARRENA.- Emaitza argitaratzea eta erreklamazioak**

1.- Izena ematea zein ikastetxetan egin den, ikastetxe horretako iragarki-oholean argitaratuko dira probaren behin-behineko emaitzak (Hiru probintzien plaza, 8), 2020ko ekainaren 21an, 12:00etatik aurrera.

2.- Erreklamazioak aurkezteko epea: ekainaren 22tik 24ra. Erreklamazio-idazkiak ebaluazio-epaimahaiari zuzenduko zaizkio, eta, sarbide-probak zein ikastetxetan egin diren, ikastetxe horretako idazkaritzan aurkeztuko dira.

### **SEXTA.- Evaluación de la prueba de acceso.**

#### *1.- Tribunal de evaluación.*

Para la evaluación de esta prueba de acceso se constituirá un tribunal, presidido por la Directora de Innovación Educativa o persona en quien delegue y dos profesores/as del centro autorizado para impartir las enseñanzas profesionales. A propuesta de la Presidencia, podrán incorporarse como comisión evaluadora las asesoras-asesores que se consideren precisos.

#### *2.- Calificación de las pruebas.*

2.1.- Los ejercicios de que consta la prueba de acceso serán calificados globalmente, por lo que no se emitirán calificaciones parciales de cada uno de los ejercicios.

2.2.- La prueba se puntuará de 1 a 10 puntos, siendo necesaria una calificación de 5 puntos para superarla.

2.3.- El tribunal dejará constancia de los resultados obtenidos en la prueba de acceso del alumnado mediante la cumplimentación del acta correspondiente, que deberá ir firmada por todos los miembros del Tribunal. Dicho acta se entregará en la secretaria del centro para su custodia.

2.4.- Caso de que un candidato no supere la prueba de acceso al curso al cuál había solicitado acceso, el tribunal podrá determinar el curso al que le corresponde acceder de acuerdo con el rendimiento global de la prueba de acceso y le posibilitará realizar la matrícula en ese curso.

### **SÉPTIMA.- Publicación del resultado y reclamaciones**

1.- Los resultados provisionales de la prueba se harán públicos en el tablón de anuncios del centro en el que se ha formalizado la inscripción (Plaza de las Provincias Vascongadas, 8) el día 21 de junio de 2020, a partir de las 12 horas.

2.- Periodo de reclamaciones: Del 22 al 24 de junio. Se presentarán por escrito dirigido al Tribunal de evaluación en la secretaría del centro donde se ha formalizado la inscripción.



3.- Epaimahaia bildu egingo da, eta erreklamazioak ebatziko ditu. Behin betiko emaitzak lehen esandako ikastetxean argitaratuko dira, ekainaren 25ean, 12:00etatik aurrera.

### **ZORTZIGARRENA.- Iraileko proba.**

Irakaspen profesionaletako kurtsoen batean ikaspostu hutsik balego, sarbide-proba espezifikoak egingo dira irailean, Dantza Klasikoko espezialitatean.

#### *1.- Probarako izena ematea*

Probarako izena emateko tokia honako hau izango da: Vitoria-Gasteizko “José Uruñuela” Dantzako Udal Kontserbatorio (Vitoria-Gasteiz, Hiru Probintzien plaza, 8).

Izena emateko epea: abuztuaren 26tik 31ra, biak barne.

#### *2.- Proba egitea*

Proba zentru berberean egingo da.

#### *3.-Egutegia eta ordutegia*

5. eta 6. kurtsoak: irailaren 2an, 11:00etan  
3. eta 4. kurtsoak: irailaren 3an, 11:00etan.  
1go eta 2. kurtsoak: irailaren 6an, 11:00etan.

Behin-behineko emaitzak argitaratzea: irailaren 7an, 12:00etatik aurrera, ikastetxe berean.

Erreklamazioak aurkezteko epea: irailaren 8 eta 9an, ikastetxe berean.

Behin betiko emaitzak argitaratzea: irailaren 10an, 12:00etatik aurrera, ikastetxe berean.

### **BEDERATZIGARRENA.- Probaren ziurtagiria eta balioa.**

Irakaspen profesionaletara sartzeko proba espezifikoak gainditu duten ikasleek ziurtagiria eska dezakete ondorengo ikastetxearen idazkaritzan: Vitoria-Gasteizko “José Uruñuela” dantzako Udal Kontserbatorioa (Vitoria-Gasteiz, Hiru Probintzien plaza, 8) jaso ere, 2021ko ekainaren 25an, edo hala bada, irailaren 10an, 12:00etatik aurrera.

3.- El tribunal se reunirá y resolverá dichas reclamaciones. Los resultados definitivos se publicarán en el centro donde se ha realizado la prueba de acceso, el día 25 de junio a partir de las 12 horas.

### **OCTAVA.- Prueba de septiembre.**

En el caso de que hubiera plazas vacantes en alguno de los cursos de las enseñanzas profesionales, se realizarán pruebas específicas de acceso en la especialidad de Danza Clásica en septiembre.

#### *1.- Inscripción a la prueba*

La inscripción a la prueba tendrán lugar en el Conservatorio Municipal de Danza “José Uruñuela” de Vitoria-Gasteiz, Plaza de las Provincias Vascongadas nº 8 de Vitoria-Gasteiz.

Plazo de inscripción: del 24 al 31 de agosto, ambos inclusive.

#### *2.- Realización de la prueba*

La prueba se realizará en el propio centro.

#### *3.-Calendario y horario*

5º y 6º cursos: 2 de septiembre, a las 11:00 horas.  
3º y 4º cursos: 3 de septiembre, a las 11:00 horas.  
1º y 2º cursos: 6 de septiembre, a las 11:00 horas

Publicación de resultados provisionales: 7 de septiembre a partir de las 12 horas, en el propio centro.

Período de reclamaciones: 8 y 9 de septiembre, en el propio centro.

Publicación de resultados definitivos: 10 de septiembre a partir de las 12 horas, en el propio centro.

### **NOVENA.- Certificación de la prueba y validez de la misma.**

Los alumnos o las alumnas que superen la prueba de acceso específica de las enseñanzas profesionales podrán solicitar el certificado acreditativo en la secretaria del centro Conservatorio Municipal de Danza “José Uruñuela” de Vitoria-Gasteiz (Plaza de las Provincias Vascongadas nº 8) a partir de las 12 horas del día 25 de junio o, en su caso, del 10 de septiembre de 2021.



Sarbide-proba Dantzako irakaspen profesionalak emateko baimena duen ikastetxean gainditzeak Dantzako irakaspen profesionaletara sartzeko bide emango du estatu osoan, ikastetxeetan egon daitezkeen ikaspostu hutsak kontuan hartuta, betiere.

La superación de la prueba de acceso en centro autorizado para la impartición de las enseñanzas profesionales de Danza posibilitará el acceso a las enseñanzas profesionales de Danza en todo el ámbito del estado, sin perjuicio de la disponibilidad de plazas vacantes en los diferentes centros.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 12an.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de marzo de 2021

**Ikastetxe eta Plangintzako zuzendaria**  
**El Director de Centros y Planificación**

**Izpta.: Eugenio Jiménez Ibáñez**